



13. Korrika.

Zorte txarra ematen omen duen zenbakia

Korrikaren 13. edizioa 2003ko apirilaren 4an hasi zen Maulen, eta, 2.150 km egin eta gero, apirilaren 13n amaitu zen Iruñean, “*Herri bat geroa lantzen*” lelopean. Omendua Ez dok amairu taldea izan zen, Frankismo garaian azpiratuta zegoen euskal kultura berpizteagatik; musikan, aldiz, Mikel Laboak (Ez dok amairuko kidea ohiak) eta Ruper Ordorikak “Gero bat gaurdanik” abesti samurra egin zuten.

Aspalditik esaten da hamahiru zenbakiak zorte txarra ekartzen duela; zuek horrelako kontuetan sinisten al duzue? Gezurra badirudi ere, pentsa genezake zenbakiak bete-betean eragingo ziola edizio horri. Alde batetik, lasterketa hasteko hilabete eta erdi besterik ez zela falta, Euskaldunon Egunkaria itxi zuten, eta horrek ondorio handiak izan zituen Korrika hartan. Esate baterako, kazetaren zuzendari Martxelo Otamendik irakurri zuen lekuko barruko mezua, Iruñeko Sarasate pasealekuan, jendetzaren aurrean. Bestetik, Korrika amaitzeaz zegoela, Nafarroako Gobernuak debekatu egin zuen lasterketaldia Iruñean sartzea. Korrikak aurrera jarraitu zuen eta auzitegira eraman zuen ebazpena; zorionez, epaileak atzera bota zuen gobernuaren erabakia (eskerrak! Azken batean, denak ez zuen amaiera beltzik izan).

Alabaina, guztia ez zen itxi: 13. Korrikan ildo batzuk ireki edo hasi ere egin ziren; hor ditugu, adibide gisara, Korrika-beka kulturala eta Korrika-laguntzailea. Bai, badakit zer ariko zareten pentsatzen: “Joño! Gauzak konplikatzen hasi dira”. Beraz, kontuok patxadaz har ditzagun, eta 7 desberdintasunak antzemango ditugu.

Alde batetik, Korrika-beka kulturala dugu. Egitasmo horrek sorkuntza bultzatzea du helburu, euskal kulturaren baitan. 2002. urtean, Tentazioak aurkeztutako “Metxa” lanak irabazi zuen “Korrika AEK” Bekaren lehenengo deialdia; antzezlanak Koldo Izagirreraren testu batean oinarrituta zegoen, eta Eneko Olasagastik zuzendu zuen. Beka antolatzen jarraitzen du AEK-k oraindik ere; eta 23. KORRIKari begira, adibidez, sari potoloa egongo da jokoan partaideentzat: 23.000 €-ko saria eta zenbait ekitaldi edukitzea Korrika kulturean. A zer pagotxa edozein artistarentzat!

Bestetik, Korrika-laguntzailea. Ekimen horrek Korrikari laguntzen dio, kilometrorik erosi beharrik gabe. Lasterketa hasi baino hilabete batzuk lehenago jartzen dira salmentan laguntzaile-txartelak. 12 €-ren truke Korrikari laguntzeaz gain, deskontuak daude Euskal Herriko hainbat dendatan. Gainera, maiz xamar hainbat zozketa egin ohi dira laguntzaileen artean. Informazio gehiagorik eduki nahi izanez gero, KORRIKAre webgunean sar zaitezke.

Edizio horretan nolakoak pasatu ziren ikusita, azkenean arrazoi edukiko du gure Ruperrek: “Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den, hobe nuela hautatzea munduko hiritar izatea”. Hala ere, abestian zehar “zaindu maite duzun hori” sarri esaten du, eta hainbatek kasu egingo zioten, hurrengo edizioak beren burua euskalduntzeko hautua egin dutenei eskaini baitzien kanta. Korrikak sekulako babesa eduki zuen ordukoan, eta Euskal Herriatik kanpo ere aldarrikatu zuten euskara. Tira, bada, hurrengo atalean itxarongo dizuet; bitartean, txintxoak izan. Agur, eta ongi izan!